EUSKAL-IDAZLEEN BATZARRA

Euskal-idazle Batzari indar berriak emateko erabaki sendoa artu zan

MUTRIKURA

Oi baño goizago utzi bear izan genduan igandean oia. Lenengo bultzia artu bear bait-genun Mutriku'ra joateko. Etziran ordea guziok gu bezin goiztar ibili. «Lizarra» adibidez, oi epelean goxo-goxo geldítu zitzaigun bonbi.

«Iras», «Euskaltzale» ta «Goikolako Txorias» bakarrik ziran, ba, lenen bultzi orretan. Donosti'tik idazle arlote au Lasarte'n batu zitzaien lenengo altatutakoai. Zarautz'en «Amonatxo», «J. Elgeas» ta beste batzuk geureganatu zitzaizkigun. Itziar'en «Itziartxo». Deba'tik Mutriku'ra, itxas-alde ederra artuz oñez joan giñan.

LARUNBATEKO JAIAK

Mutriku'ra iritxi giñan bezin sorta aurreko gauean izan zituzten jaien berri eman ziguten. Ango antzerki jaia noski! ¿Eta «Altzetas»-ri ta «Bazarris»-ri egin zien arrera?

IGANDEAN

Goizean goiz jai guzien buru bezela meza zuten. Gu ez giñan meza ortara garaiz iritxi; gero esan zigutenez ba-dakigu ordea asko ta asko urreratu zirala Jaunartzera. Meza nagusirako iritxi giñan gu. Jende asko zan meza nagusian ere. Itzaldia Aita mixiolariak egin zuan.

ILLERRIAN

Meza nagusi ondoren illerrira joan giñan guziok. An, Arnope'ren ilobiari jarri duten gurutzarriaren onespena izan zan. Luistarren zuzendari jaunak onetsi zuan. Otoitz beroak egin genituen an zeuden euskaltzale guzien onerako.

BATZARRA

Batzarra E. A. B.-ren aretoan egin gendun. Ona aitzazkeneko «El Día»-n «Lizarra»-ek zerizion batzar ontaz.

Mutrikuar anaien emaikortako gozoa biziaurrean genula asi zan Euskal Idazle Batzarra.

Batzar buru bezela dela eta eztu mutrikuar idazle gazteak jarri genituen «Aberria» nagusien zala.

Baña ez aben irudituzen nunbait «Euskal Idazle Batza»-ko artezkari izateko aututakoren batzuek batzarrean izanik, berak an buru bezela azaltzea.

Ta buru izateko aukeratuetako batek zeredozer adierazi bear izan zuan.

Onen ustez, «Euskal Idazle Batza» graindik osoro, bear bezela, sortu gabetzat jo diteke. Jalo ote zanen otsa nabari genun, bai, guziok, baña bizi danen aztarrenik ez da iñon arkitzen. Batzar auxe egiteko ere mutrikuar tal dearen gogo bizi-bizia bear izan da. Gañontzean, artezkari aukeratutakoak urteterdiren buruan ianik txikiena ere egin ez ta auzartuko ote ziran, gero, batzar-deia egiten? Onegatik, batzar buru bezela, dei egin zutenak jarraitzea iruditzen zalo egokien.

Gañera bere burua nolabait garbitu nairik lana galerazi zioten bi eragozpen altatu zituan: batzarrerako garrantzi gabea bata, garrantzi aundikoa bestea; «Euskal Idazle Batza» guziontzakoa ez izatea, alegia.

Ontan, batek gure Batza «jalo ordukoa» zala ta besteak «ilda jalo zala» zioten bitartean, sartu zitzaizkigun Naparroa'ko ordezkariak... ta abek txalo beroak entzun ziran.

Zeudenean, arranok ere, mutrikuarrak batzarburu jarraitzekotan, ta azkenik iritxi zuten, berak jeiki, ta «Larrekoa» «J. Elgeas», «Aberria» ta zuekin ari dan au malburura igotzea.

Ona orain batzarreratu giñan idazleon izenorde salla:

«Aberasa», «Abertia», «Altzetas», «Andonia», «Ai...ntza Mendia», «Artetas», Artibais, «Atxukales», «Atxuria», «Bazarris», «Biars», «Endaitza», «Euskeltzale», «Goikolako Txorias», «Gurutz-ondoa», «Inda-Mendia», «Iparraldea», «Iras», «Iri-», «Inda-Mendia», «Iparraldea», «Iras», «Iri-», «Itziar gaina», «Itziartxoa», «Ixaka», «J. Elgeas», «Kal-aldea», «Kuireka» (?), «Larraldea», «Larrekoa», «Lizarra», «Maltxoa», «Manezaundia», «Murugaina», «Ogoñopea», «Txaldatxura», «Txaranbela» ta «Txori-errekas».

«J. Elgeas»-k ekin zion aurrena ta «Euskal Idazle Batza» Lazaro'ren antzera baztegon, bera Josu etzala adierazi ondoren, guziok, artean ildakoa berpiztu bear genukeala esan zigun.

«Altzetas»-k, iya bi urte inguru dirala egindako batzar artan esandakoak adierazi zituan.

Neronek ere ondukoa berritu bearra izan zuan, euskera aldez gureon idazlak ere gutxiago izango ez ote ditugun nabarierazi nairik.

«Larrekoa»-k bere izkera gozoz eta «Irulara»-ek bere euskera ebakiz indartu zuten gure iritzi ori.

Ta «Manez-aundia»-k urratutako bidetik «Iras»-k jarraiturik, eztabaida polit bat sortu zan ondoren euskera ...a, arriko euskera zein ote diteken jakin eta irakatsi nairik. «Txaranbela»-ek bota zuan bere enbidotxoa.

Baña aria galduta genbiltzan. Ta berriro bideratu giñanean, «Elgeas»-k bizkaitar anaiekin zegola ta orain ere alaxe zerizkiola adierazi zigun: Bizkaik abertzaletasunaren epean bear zukeala, alegia. Baña... ezer egin ezala ikusirik, eta euskera begi aurrean itotzen daukagun bitartean txamar urdiña ala gorria bear ote genuken jardunean ari gabe, murgil egin ta euskera legorreratzea dagokigulako ustean, bere iritzia bazterlu ta gañontzekoena onirizlera jartzen dala, esan zuan.

«Altzetas»-k azken itzak esan nairik, gogortxo jo zituan bizkaitar abertzaleak. Baña «Ogoñope», «Endaitza» eta besteren batek itz samindiak entzunda, iñori min emateko itzik esan bazuan guziak jasotzen zituala adierazirik anai-maitasun agiri ederra eman zuan.

«Artibais» ta «Endaitza», «Elgeas»-k irikitako bide ederretik sartu ziran ondoren.

Ta guziak ...ao batez aitortu genun, euskeraren onerako, aldertirik gabea bear genuala «Euskal Idazle Batza». Oñarri onexen gañean jasoko degu, beraz, jalo ta il edo illik jaioa genun Batza. Bear-bearrekoa baitegu.

Erki guzitako ordezkariak izango ditugu batzorde artezkarian ta guzitatik berdin.

Bi oñarri aben gain araudi-gai bat osatu ta dirua gureganatzeko bideak ...ra ditzan, batzorde ... aukeratu genun, ondoren, jardunaldi atzegin bat berandu zala ta urrengo batzar baterako utzirik.

Ona batzordekoak:

Bizkaya, «Endaitza» ta «Otxolua»
Gipuzkoa, «Txaldatxura» ta «Iribe».
Naparroa «Irulara» ta «Manez-aundia».

Ta Aberri-Egunean euskal idazle abertzaleok guziak elkarrekin bazkaltzea erabakiaz, amaitu zan batzarra.

BAZKARIA

Batzarra egin g nun aretoan bertan gendun bazkaria. An bildu giñan guzion anaitasunak etzun gutxi-gutxi baliyo. Bizkaitar, napar ta gipuzkoarrok naste iru erki oietako euskeigtegogoz eta pozez mintzo giñan. Onelako anaitasun uneak maiz bear lirake.

ETXERA

Gurekin joan ziranetako geienak gero etortzekotan gelditu ba-ziran ere, guk zeregiñak giñulako iritxi al-izan gendun lenengo bultzian artu gendun Donosti'ko bidea.

Ezatakigu igandeko batzarrak euskeraren onerako emaitz onak izango ditun ala ez. Izan bear lituke ta izango ditu an bildu giñanok artutako asmoak bazterten ez badítugu beintzat.

Batzordekoak beintzat bentzan asatu bear dut- igazkor- gertatu ez dedin.

Egunoroko ogia

Lan gabe gelditu zan egunetik, bazirudin Andonik, arako etxe utsa guda utsa osoera zarra berean egitu nai zuala. Len senar maitari, on, eta aita xamur, bereartekoa, eraman gutxidun zebillen. Edozer unkerik ezerrezen zuan eta bere onetik atera. Emaztea piper, seme-alabatxuaz legor...

Irabazirik ezak etxera ekarri zion bear-izanaz gañera, senarraren aldakuntz aitu-ezin onezaz, Edurne gaxoa estera, naigabeak itotzeko zorian biotza bazeukan bezin larri, bere samin guziok gogo barruan gordeaz, len baño ere samur eta beratago azaltzen zan; askotan ozen samurtasuna Andoni'ren biotzean ospin bihurtzen bazan ere.

Ipiñi zuan maia bazkaltzeko, atera zuan berbera zuku erratilua, ta sukalde bazterrean jarrean ezerita jostailu zartxo batzukin zeibiltzan bere umetxuai deitu zien:

—Ea, bazkaltzera, maitetxuak.

Amaren deiera umetxo baten zeuden lotan bereri begira gelditu ondoren, umetxo biak zutindu ziran, Jontxo lau urteko mutill koskor gogorra laisterka, ta Mirentxo bi urtekoa al zuan bezin azkar, baña zerbait ere nekeetan oraindik bere anaitxoa bestean igitzeko.

Edurne'k ipiñi zuan mutiltxoa bear zuan alkian, atera zion platera bete zuku, ta ezeri zan nexka-koskorra magalian artuaz. Onentzat ere ateratzen ari zala, an leio ondoan izparringi bat irakurten, ta ingurukoaz oartzen ez balitz bezela zegon senarrari dei-egin zion baña:

—Andoni...! Ostu bear zaizu...

Alaborik baten jeiki zan Andoni ta maieratu zan, izparringia utzi gabe. Au urbiltzean, «Altaren» egindu ekin zan andrea baskal aurreko otoia egiten. Semetxua bakarrik erantzuten, aspaldi oi bezela. Umea baña, bere arrebatxuari begira edo ourkabe ari zan. Edurne'k maiteki sorbalda astindu bat emanaz agindu zion:

—Erantzun ba, Jontxo... «Emaiguzu gaur egunerokoa ogia...

Au entzunaz bizi-bizi eraso zuan aitak:

—Ez esan Jontxo! Ez eskatu eman ezin lezakenari!

—Jaungoikoak ...n ezin?—erantzun zuan apal emazteak—Norg ba ematen digu gizan eta d...a guzia gure Egille ta Jabeak ez bada?

Bere oarrai erantzuteko, birnoa besterik senarrak etziola ikusirik, biotza erdibi zuala emazteak ixildu egin bear izan zuan. Umetxoak aita-amaen artekoa igarrita, bañere baño geldiago bildurti bezela, bein batari bein besteari beti ere begituaz berena jan zuten. Andre onak malkoak gorde ezifik, ez etzuan ezertxo jan.

Bai zuan naigaberik asko. Lanik ezaz gañera, bere senarraren aldakuntza. Izan ere iru urtean lan egin zuan «guraso» artian, alogera ona eman bazioten ere, baita siniamena kendu erabat. Eta onetxek geien bat bere biotza samintzen zion.

Bere baitan senar-aldez Jaungoikoari parka eskatuaz, bazkaldu zutenean jotaratu zuan txikiena, jaso ta txukundu zuan sukaldea, ta ustu zitzaion urzilla buruan artuaz, aitari esaten auxar ezinda edo, semetxuari esan zion:

—Iturrira zua, Jontxo, ta egon emen aitatxokin.

Andoni'k ezezinan eginda, leio ondoan kanpora begira jarraitu zuan.

Besteetan baño denbora geiago eman zuan Edurne'k iturrian, eta Andoni, kalera joateko ura etorri zai. Naiz eta bere arteko gogorraz, lengo biotz xamur bera nunbait, eta etzuan umetxuak etxean bakarrik utzita gelditu nai. Nozik bein, bildur-antzez urbiltzen zitzaion semetxuari pozkeri bat egiñaz, ekeri zan ostera lengo izparringian lena berriz irakurten. Ezagutzen zuan bere emaztie on errugabeaz egiten zuanaren bidegakeria; ona baño obeago zan emakume gaxoaren gain bere gogarte txarra itzultzeaz egiten zuan gaiztakeria, baña ezin bere burua menperatu, ta gutxiago menpekuaren emanera, siniamen arazoan bere egiteetan jarri. Ta zuzentasunez garaile izan ezinda, onek ematen zion amurrua zan emaztearen gain azkatzen zuana.

Sumatu zuan ondo au etxean eta sukaldean sartzen, baña etzuan aitzaki txarra eskuan izparringia, begirik ez jasotzeko. Edurne baña pozarren zetorren, eta al guzian alegintzen zan zerbait zio zuanean senarraz itz egiteko. Orduan ba birritan.

—Andoni!—esan zion sukaldean sartuaz batera, ta len beren artean ezer igaro ez ba'litz bezela—Iturrian nagola, txauniburu jaunak deitu nau elizpera bertatik ikusi nabenean... ¡eta... ez dakizu! Olalde jaunak eskatu omen dio beretzat emen txoper on billatzeko ta zuzaz oroitu da. Irurogei ogerieko illean, etxea, argi ta ura. ¿Zer eska genezakegu geiago?... Len giñan baño ere obeto gera. ¡Jaungoikoari eskerrak...! ¡Jaungoikoari eskerrak!

Emaztearen albisteaz, Andoni txunditura gelditu zan; baña etzion itzik erantzun. Bazirudin Jaungoikoari eskerrak emanaz emazteak zekarkion berri onak apal-eraso egiten zuala, ta auxe aitortu nai ezik ixilik gelditu, ezer erantzun gabe.

Edurne arrituta, ixildu zan baita gizonari igerri ezifik, irabazpideak ere poztuko ez ote zuan bildurrez.

Ontan zutindu zan Jontxo, ta amarenganа juanda galde egin zion:

—Amatxo: nun utzi dezu urzilla? Ea dezu etxera ekarri.

Edurne'k semetxuaren eranera oartuta algaraz eskuak burura eramanaz ekin zion:

—Nik egin det parregarrikeria! Txauniburu jaunak deitu nabenean, juan naiz beregana zilla betetzen utzita, ta ain albiste pozkarria eman didanean, zertara atera nintzan aiztuta, ur gabe etxeratu naiz.

Emaztearen ateraldi onez eman zion parregureak, askatu zuan Andoni'ren gogoa lotzen zuan arrokeri lotura, ta irten zion algara gozo baten juan ziran bere arteko kaltegarri guziak. Parrez eta gozo-gozo esan zion:

—Zaude etxean; nik ekarriko det zuila, ta bide batez baita txauniburu jaunari eskerrak eman ere.

Orduan emazteak maite-maitez eskatu zion:

—Eta Jaungoikoari ez, Andoni? Ez al dezu uste Bere gandik datorkiguila gaurko ogi bide au ainbeste aldiz eskatzen nabaitu nazu-ta?

—Baita baita; ta emendik aurrera len oi nuan bezela zurekin eskatuko det nik ere.

TENE

ARGIA'ren Urteurrena

ARGIA euskal-asteroko onetan idazten degun bakoitzean, berriz eta berriz idazteko gogoa ematen d...

Eragozpen asko izango zituan bear bada ARGIA'k bere urte abetan. Baña ARGIA'k beiñ bere gaiñ Gotzai Jaunaren onespena artu zuan eskeru, berekin zuan Jaunaren laguntza ta indarra ta orregatik eragozpen guzien gañetik azaltzen zaigu gaur ARGIA.

ARGIA'k euskaldunai mesede aundiyak egin dizkie.

Amalau urte abetan euskeraren alde ARGIA'k egin duan lana, lan bikaña, aundiya, goragarria, txalogarria, guk euskaldunak bear ainbat eskertu ez deguna, orain ari da zerbait azaltzen.

Euskera badijuala ta euskeraz egin bear dala ta guziyok lan orreri gogor egin bear diyogula ta euskerak gaur beste lekuetan ditun er...gorpenak emen, Gipuzkoa'n, ez dituala ta gaur ARGIA'ra iya ezin konta ala idazle datozkiyo.

Ta nolako idazleak? Denbora batean ARGIA sortu zuten berak ere iñoiz usteko etzuten bezelakoak.

Ze irakurgai ederrak ARGIA'k dakarzkin gaur. Edozein gaietan gaur ARGIA'n idazten da. Artu eskuetan ARGIA: zer gai bereziak ARGIA'k ekartzen ditun. Danak txukun, euskera ederrian, danak txoratzeko eran.

Zorionak ARGIA'ri bada ta euskaldun guzien asterokoa ARGIA izan dedin, idazle ta irakurleak, ARGIA'n ekiñ.

USHREA

Antzeztalde batzaldia Euskaltzaleak eratua

Izaondoar antzezlariak asitako batzaldiari buru eman dio irundar taldeak, eta gaur ekin diogu epaimaiekoak aldaparik gogorrenari: erabaki egin bear ba.

Lau talde aukeratu ditugu guzien artean, gurekin batera, azkenean da ontan gora abiatzeko. ... ak ere saiatu ta lana ederki ... tutelako, abek obeto egin ... balzik. Ta jo degu gorunitz.

Abiatu orduko atzean geldi... gu Zarautz'ko taldea. Ondo ... gabea agian ta ezin aurrera ...

Gero, berriz, saribidea gald... te Alegi'ko antzezlariak. ... utzak, nunbait eta nekatu ... tzaizkigun.

Leia gogorrean gelditu ... Ernani ta Oyartzun'go taldeak ... gallur-gallurreraño biak etorri... diran bildurturik, sari bakarra ... gu emateko, bidea luzatzea ... degu. Ta luza ta luza, azkeneko... niarrak ere errenditu dira. Oya... rrak garaile beraz.

Ta ona gure

ERABAKIA

Saria: Oyartzun'go taldeari.

Aipamen berezia: Ernani'ko ... ari.

Biotz agurra: Alegi'ko taldea...

Biotz agurra: Zarautz'ko ta...

Donostia'n, 1935'g. Jorrailla'...

Epai...

ALKARRE... BILDUR...

Europa nazio agintarien ... ez zaizkigu amaitu. Amaitezi... ta izarrak dira benetan. ... alemanak egin zutena, eta ... kanbilla sortu dan! Alegia, ... inguruan, nazio denak arma... ontzi, gudariak, gerra tresna... tzen ari dirala alegiñean, ... ek, alemandarren agintari ... mundu guzian aurrean ... berak ere besteak baño gutx... direla, eta gerrarako gertatu... moak dituztela. ¡Motellak, ... ere astoratu bazterrak...!

Bereala prantzesak adizkide... Eta norekin adizkide, eta ... rrekin. Laval prantzesa eta ... errusitarra alkar ikusiak ... tan eta azkenean alkarren la... paperak egiñak dituzte.

Ez ori bakarrik. Lava' ... gizon azkarra izaki noski, ... kin adizkide agertu zaizkiga... tzezak gizon ori daia ta. A... dik denbora gutxi esan ... lita...? ¡Prantzesak eta ... adizkide! Ezin zitekeala ... siguten. Bai, baño, alkarren ... gaituk eta, oetzek lanak.

Eta gauza oekin, alemantar... tutu dizkigute. Ba dirudi kate... ratuta dagola.

Izan ere, astotzo izan ... oraingo onetan. Mundu guzia... ak kontra dituzte. Eta ez da ... goko. Buru pizkat balute, ... tan ori gertatuko, noski.

Mundu guziak daki, aleman... zela bere kontra darenak ... ruak armatzen ari dirala. Pizk... go pentsatu izan balute, ... tzien erreta egingo. Mundu... gia, azaldu beren etsaiak egin... zirana... Esan, guk pakea nai... oriek nai dute gerra... Ori ba... bat batean argitu dituzte bere... indarreskuak, eta ara or mun... zia beren kontra. Izan ere, ba... pakearen etsairik aundienak ... bakarrik dirala...

ARTETXETAR JOS...

ARGI DONEA da euskal ... liburutik onoena

II'garren Euskal - Antzerti - Eguna

Gaur, igandea, Jorraillak 28

Gaur, igandea, egingo dira Donostia'n, II Euskal-Antzerti Eguna ospatzeko antolatu diran jaiak. Ona egitaraua:

Goizean, amaika ta erdietan

1). «Antzerti» aldizkingiaren zuzendari ta antzertizal... jakintsu Labayen'dar Andoni jaunak itzaldia.

2). Sarituak izan diran antzerki-idazle ta antzezlari ta... deei sari banatzea.

3). «Eusko Abesbatza»'ren abes aldia

Arratsaldeko lau ta erdietan
Kursaal antzokian

Antzerki batzaldian lenengo saria irabazi duan «Go... oñazea» antzerkia antzeztuko dute Tolosa'ko antzezlariak.

Guziok dakizuten bezela antzerki ori Deba'ko Muxika'r... Tene («Tene» idazlea) andereñoari zor diogu, berak sortu... da-ta.

EUSKALTZALEAK